Bileterik gabe

Jon Arano

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1985 Jon Arano
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1985
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

helezin

ia, eskerrak ematen nizkien, nere baitarako,
itxoiten nuenaren antza zutenei
ez dut gogoratzen norena den hau

bakarrik nagoenean
ferekatzen gara
emakume ideala

irratia pizten dut
interferentzi artean gor
borobiltzen naiz
odola irakiten kuartoan

Gixurdeak segizioan,

handiostasunak, zentzuak
suspergarrazten didate,
bi ortzadar daramatza
nire brankak,
albo bakoitzean bana.
Ume aurpegia gorde
desestali ez diezadaten.
Nagitsu edozein begi
mingots irekiz,
ez zaitut utziko malekoian
irudikeria goxo hori

bat eta majinabat
nire makurraldian,
kostatzen da uxatzea,
kontsumituko al zara
zu orobat,

biharamonean ez dadila

zure negarrik ere gera,
suhartutako kristal
biguinak bezala,
urgainean
arauntsiaren dardara,
zure neregarrik ere gera

usain bakana

Zubi baten garaikaldeko
etorbidearen dotoretasuna
urhertsietan begiratzen da.

Zubiz behera, piskanaka
soltatzen doazen urekin
bidaliko nituzke
isladatzen diren irudiak,
oi miraria! amoroski
urak kate gabe

ibai bat dugu bion artean arreba,
esku eskailera itoa da jadanik

kitarrajole satiro jakituna
kantaiok hire oda
nire zakilari

jim morrison

ezin ase

Nabari da loa
nere ohean ezik,
espresoa trenbidetik
pasa bedi geldo-geldi,
moteldu dezan haren hotsak
aje bakartia, eta lotsa,

ze dardarak!

Gelditasunean
nagusitzen da loa

hau gurutzea!

birjinari

Biluzik asmatzen zaitut
bide euritsuan barrena

Ez gara amodioetan arituko
ziur aski,
halere zutaz oroituz,
estutasuna, ederra izan da;

biluzik somatzen zaitut
inoiz aipatzen ez dudan
bide euritsuan barrena

bihotzaren izerdia, negarra.

baratzeko urrezko enbortto lodia
ez ezak ezkuta txabol xuria,
han baitzeukat zai
bihotzaren negar eta eztia

guregan jartzen ditu begiradak hodeiertzak, bera baino haruntzago gara

hots ausentzia,
elur malutak
ez duzue erori nahi,
atzera arazi nazazue,
nire argitasunaren
izar hotzak bezala;

zure maitasuna
aukeratzen dut
oihana zale ahotsetan,
ez dut etsiko;
esan oihartzunari
obeditzeko
iraun dezadala

helezin

Urrutiko olatu haserreak,
xixtu jotze inkongruenteen
zai ez daude,
zure behatzen erkainek
nahi duten arroka,
zigortzen dute

tori miaztoa

Urtuko nintzateke, zu hartzeko

ekintzaren hamarrekoan,
geretatik aldegin nahi duzun
ile bihurri, langarrak ikuttutako
lore izutu basatia, zurekin,
atsegina da oineza,
ibaia ez da atzeratzen,
arrastaka dator belar mototsa

ikutu iezadan
irrintziekin,
egunak eman,
hobena eskeini

sirenaren jokuak

nola sentitzen natxion
hire ezpainen jokuazpian!
hire balkoitxoen gozoa
miaztean

abere grinaduna etorri dun
edatera ertza

inperdible galdua

nik nahi nuena, guzti hura mogiarazten zuen pertsona inbisiblea zen.

m. proust

bizikletan

Bidetxidor bazterretik nindoan,
leizezuloa hortxe, erretenean,
ez nintzen existitzen ia-ia,
aurreratzeko keinua
egin zidaten arte.

Orduezkero beste bat
izan haiz

beste pirika batez
sartuko naiz
loaren sabelean,
eta behin behintzat
lekuan egongo naiz,
sabelaren loan

berri bat arkupetan
kaleak geldi daude,
lagun bat bahuen
ultzera zornekin
amaitu zian,
gurutzatuko ote
dituk edo ez
jentilen kataratak

egun luzean kazkabarra,
anpoloiek bustitzen gaituzte,

edozein bezala korrika
haurtzaroko gauen antzera,
ijitoak hartu
eta ez gaitu hartzen,

hodeiartetara jeitsi eta
ilargia gurekin dator aldapan

nola ikusten duzun goizean...! hau poza
entsaiatzean!
ez zinateke aldatuko inorgatik,

gerrikoa estutuko dut
korneta hartu,
garbi eta latz

bat egingo naiz bidearekin
bestorduan hondoak jota txalupak
egoten ziren lekura abiatzeko,
adieraztera

Kolorinetan infinitoz gehiago
beste simetria ikuskatzeko gogo,
desorekatik udaberria.

Bilatu behar dut errota hura
gida liburuetan ez dago,
bertan egotean agertzen
da beste zerbait

Sartu eta atera
jendea gure bizietan,
bueltatzen gara
gustatzen zaigunaren bila,
inpresioak indartuz
ezin isildu poza,
gaztetxaroa utzi
genuen ohean

maita gorputza,
salto lepaxerloan,
bi ibai osatzen azalean,
zilborrean galdatuz
zotinka erortzen oinhutsetara,
miresmena, itsaso
edo sorora
berdin sartzen haiz

Etorkizuna amets bat da
larruak nozittuko du,
kopetari sortzen zaizkio
istorio aldrebesenak.
Nork asma?

gerta baino lehen
gozatu etorkizuna
lehen baitlehen;
itzulera eskuan,
harrian hilgo
ilusio argiloa

Behin batean
zimaurrak sugarretan
hasten diren gisa,
su hartu omen zuten,
kronistek diotenez,
paregabekoak ziren eta
izan zitezkeen guztiak.

Handik irten omen zen
bakoitzaren itzala,
baita ere
izaki eta itzalen
maitale guda amaiezina

irakurtzean denboran zehar
personaien gainera bota gara,
arin-arin egiten uzten diot
eta larrupeko zerbitzariari adio

eroen parean

mutiko ginelarik
garbi ikusten genuen
udako arratsetan,
ahora etorria
aitortzen genuen biok,

hiru txerrikumeak
gauzen eta asmaketen
doinu, esanahiak

Orbela muturrera
arrafagetan zuhaitzak;
promesak eraman eta hostoak
ekartzen dituen udazkenak,
oro estaltzen du,
arboladi, pergolak,
promes zabordioak

estrada

aireratzeko banderarik gabe
ikusi ditut soldaduak,
guztia egin eta landare gisa
bizi diren gizonak,
egunsentiko gurdiak
emakumeak erditzera garraiatzen,
ikusi ditut;

atean sentitu zaitut,
une batez
zuregan pentsatu dut

asteazkenean

denborarekin batera haziz
landatutako alanbre artean
ardi penadunen bidean
ixiltasunean usteldu eta hondoratzen
doan munduaren murmurioa entzuten da

Zein gogozkoa izaten den
eramaten zaituzten orpoetaz
zoruko hostoak akordatzen direnean

kaleak igotzen hoa,
kristalarentzat jeisten;
baina berriz
hiretzat behintzat
igotzen hoala.

ateri

Mandiora ateraz
begiratzen diot
aurpegi mehankoila
eguraldiari.

Esku bat poltsikoan,
bestea paisaia apuntatzen

gogoaren azalera zailxamar
ateratzen dira egun hobenak,
dirdira izarren ausentzian,
batzuk besteen orduak dakizkigu,
hotzjariopean itsusitu haiz negarrez

egubideak

Aintza, agertu ez zen
zurrumurruari,
bai bait zen
bere buruaren iturri,
hasiera baino lehen.

Ospe, bereak ursoro guztiak,
bere erresumetan gertatzen dena
olatuen artean nahasten diren
prixtada mardulak;
galkorra bere apainketarako.

Bere eta ororen aurrean
inongo harridurarik gabe,
denborak ere inguratzen ote
du horrelako emaririk!?

mutil koskorrei gehien
gustatzen zaizkiela
putzuz beterik
dauden plazak,
tamainozko babesak
majin-aren estalpe

Datozenak datozela
mendekatuko gaituzte.
Badator uhin berria
txalupan muntaturik.
lapurtuko ote digute?
et et et
goazen guztia estaltzen
duen goroldioaren aurka.
Badator uhin etorkina
muntatua
bizirik autopsia
egitasmoz

maiz ur inozoak

urek ahaztu dituzte jadanik
beroien aurrean jeiki zen zubia,
hainbat joputasunera
belaunikatzen zirenak,
ahaztu ur geldien gardena;
urdin gorien zehar doaz
kaioen hegalots astuna
bakarrik entzuten dute urek

igarri dute olatuen garbitasuna
eta beroien emaitza

Barandilan eseririk zegoen
langabe zapuztua
izterrak zintzilik
ze pasiatze nazkantea!

ez dakit noiz hasi garen

atzeraka martxan
barandila eta biok
agian ur aldakorretatik
bista ken ezinean zeharo

koxkak aise gainditzen ditugu
sareak bi bider
alferrik haizearen kontra
ezinak egin,
aurpegia bueltatu behar,
iragana har eta utzi,
ukalondoan ez da amaitzen
ibaia, gizakumeen musu-
ezin-eman, gorrotagarriak

eusten zion zubiaren
konortea galtzen zuen
bere onenetatik atera

beltzune

pertsianak

ikusten ez dituztela
uste duten gerizpeko
irudi lausotuek
zure zelatan daudela
senti arazten dizute

arraultz min gehiegikoa,
nahi dudana ezin aurkitu,
inertziaz bizi naiz,
esnatu eta nahi-gabe
hor nago, lirgindatsuak
bere bolumena,

isurbidetik bota,
edo neurriak hartu
beharko dizkiogu

Gau betean leihotik bota
zenuen izerdi hotza,
hil zenuen, zure barnean
zekenkeria guztiei amore
ematen ziena.
Igoa zinen mendikate
garaienetara, sabai
urrunenetara, eta gaixo
aurkitzen zinen
mendi barregarrienetariko
batetan. Hainbat gela
eta jokaera lizun neuzkan!
esan zenion zeure buruari

bultzadatxoa, ostikoa
inguratzen nauen murrailari,
gaixo ez zaitez erori oztopo
harroen bide mesprezugarrian

hilerrian, nahi eta nahiezko
jende zirenen hilarak,

besteentzat garrantzizkoa
zarela pentsatzen baduzu
gizaixoa! ez edertu ordu
hauek, tristura, armiarmak
zabaltzen du sarea, ibaiean
aldenikalde, alde eta aurkaren
dema ikustaile,

sasikoa ez zara eta tira

marrubiaren itzal arrosak

arros antzuaren fruituak

argitasun handiak
beldurtzen hautenak
agurtzen haute, zulatzen
biharko kezkak;
har ezak besarka, gonbidatzen
didaten egarria arretarekin,
ez huen uste
bihotza gelatina dariola

gorputz osoz infernuan,
bakoitzen bandoa
arimaren ogiaren alde,
ozeano eta eguratsetan
nahi nizuke arrasto

gizantzeko

lurrazpian, sehaskan, joku sublimenetan,
eguzki galdatan, itxituretan, upategin,
bertutez, gorrotoz, ezer ez da gizakientzat
ez bada. Seinalak, antzezleku mutuak, normalak
gaiztoak e.a., beti berdin, bizar, burusoil,
titiak, gizantzeko abere, gizadiaren jainko
eta marzianoak, oi! ez, ez, denetatik dago
zabaleran, baina hau ez ote da broma?

goiz iluna
benetan zorigaizto
ezin atera lainoari leihorik,

zigarroa eskuetan
fedearekin eusten dudan
bakarra!

ez da nik espero nuena

Egoitzak aldegingo luke balkoitik,
gauak pultsua irabazi dio egunari,
zikinaren dirdira,
zorabioak menperatzen zaitu,
eguzkia urrutiegi duzu.

Trenak geltoki ttikietan
ez dira geratzen,
esan zure barruei, ttu,
ezin dela aldegin

jotake gozo gabe
arrai-txoria
alferrik! hegoak ezin mogi gorputza,
alaitasun leloa hautsean zegok,
abelera ezezaguna, basapiztien poza

Urdin kotoitsuetara
garraiatzen zaituzte sustitutiboek
hodeietan zandaliak
sirristatuko nituzke.

Hainbat eta gehiago gozatu
orduan eta xahutuago
geratzen dira hezurrak;
gogoratzeko ez naiz gauza,

errubiaireko argia
ikusten dut,
urak arima erreskatatu
eta arrastatzen didate,
gainera gaua jauzi da,
heriotz garraio plazenteroa,
gainazala, itxura,
usteltzen ari zait

Eguerdiarekin bat eginda,
zarpail zakarretan josita
eskalea gerturatzen zihoan herrira,
sasiei lurra harrapatu nahi zien
atso basatiak,
bekoizkeriaz begiratu zionean.

Arratsaldean eskalea iheska
ikusi zuten, presaka,
bere aho zartatura ezer
eramateke;
herri hartako harriak
madarikatzen zituen,
ondratuetaz leporaino,
ezta ogi puskarik ere hobiragabeei!

Gure begiak
ireki nahi dituzte

gure begiak zerra batekin,
ireki nahi dituzte.

Larrututako behatzekin
asma eta ikuitzen ditugu
gureak

Zerbait gertatu da
lasaitasunaren maindire pitzatu
eztanda su eta gereizak
ez dakit baina hartzen bagaitu!

hilda nago ustekabean
beldurrak jazten nau
ongi, besterik ez?
teloia erori da
itxaroten nago oraindik

Uste ez duzun ispiluan agertuko zara
hori bai, bihurduraturik,
baina, ez dagoela zure ekintza
guztiak hartuko dituen ispilurik...!?

nor haiz hi, ni lotzeko?
inor arruinatzeko?
aldegin behar...!
ezin dut herrien desondra ikusi
ezin dantza beso lotuekin

haizen bezalakoa,
ez bezalakoa haiz,
hain haize!
sorbaldak bere nahi
hartuko haun,
komertzioarekin zer
ikusirik ez
dun sirimiri

hi geldiro hoa,
bapatean uste dituk
begi batzu,
aztoratzen haiz
taupaden jariatze mikatza

goielkorra

hire zoko guziak, leku desegokiak,
hire ezdenborak zukatuko dizkinat,
hi edo bizitza, a!
maite haut erraietaraino

beste batzuetan gorrotatzen haut
eta pena galanta dinat
hire zigorra ezarri didatelako

Ona besterik nahi ez badun
orain egon hadi, negar egin orain.
Lurraren erdiditik mindu,
itsutzen hau eguzkiak,
ez jakin arren mehatxaturik hago,

odol ibaia izango dun etziko
kalea, barrenak itorik;
izan haizena uraren azalean
pilpil joango dun,
tripazbehera, zurimorea hazten,

heriotza baino harago
sugeak bizirik dirau
nerbioak esnatzen zaizkio,
era honetara, ez alferrik!,
maite zaitut gogoan ez
zaitudanean ere,

idazten dizut zoritxarreko,
ezin lortu askamina

Urhozpeletan mila apo nabar
kroaka ilargi zehatzari;
isurtzen hasia, horretan
segituko zuena, isiltzen da,
zentzuak hausten dizkit
aparra desegin
nahi gabe jardun behar...

Zenbait jende, eraikuntza,
fetxa, bizi, eredugarri
eta mugikaitzetan ezin sinistu

Ezer ez da behar hainbat haundi,
tente irauteko sorbaldan,
haren pean zerbaiten
espasmo eta dantza
irakiten gainezka

Nondik atera da amesgaizto hau? emakumearen lepoa tajuz ebakirik dago, okotzaldetik irtetzen zaion zilestea, nire bihotz biluzi bakartiarekin itsatsi da. Kristorenak esan nahi dizkit, mingainik ez izan arren, begiekin esaten du beharrezkoa, urdail usaia ezin diot aguanta!

Hiritarrari gauza gutxik loa
kentzen dio.

Txirrin ezkutuena jotzen dion
klarin batek esnatzen du gauerdian,
eta gizonak galdetzen du
ordu horren zerga;
erditu zuten, luzaroan
itxoin du hau,
azken hatsaren antzerkia,
inor ez da libratzen,
lurjota amesgaizto,
eternoaren beltzunean
oihuzulo isila,
he m e n e n

Onartu bakoitza bere lekuan,
zer dakigu besteen zentzuetaz?
besteentzat ez asma katerik.

Beraiei hitzegin behar
hitzegiten diguten bezala...!
Beraiei ahaztu arte loturetan!

nazkatzen nauen guztia antzezten dute

egunonak izango ditugu
gaizki ez pentsa
aldatu ahal dela
kimera ez da beteko

jo dezagun
kontraesanik ez dagoela
konbinazioak bakarrik

Aurka daukak asuntoa,
aurka daukak asuntoa,
izen eta jabe gabeko
amets artean, kanpoko
argi izpiek mareatzen haute.

Zeren lapurretak, joku
debekatuak baizik esnatzen al dituk?
uste faltsuak, hartu nahi duana,
gazi-gozo, kalanbrea bapatean,
inora ez haiz iritsiko,
baina arren amaitu
insomnio-zalantza horiekin

has daitezela oilarrak
eguna adierazten

Desesperazioak hozkatzen du,
kontsolatzeko jarreran
eskua ipintzen duk,
gonbitogurak, abere zabukak,
txunditzen haute
komunerako bidean.

Noizbait handik irten behar
hautsitako aulkian erortzeko

katuak eta zakurrak
jaun eta jabe gauean;
kondarrak miazten katuak,
pozoi hila;

konforme ez direnen
izerdi hotza, zakurrak.
hormakontra gizon piloa,
hara zer abelera! jokatzeko
ordaindu behar,

enbatak

Gerra zibilaren gurdia
zaldi sarnatsuek daramate.

Elkar janez,
irabaziak agintzen du,
eritziak zaramara,
nor hasi zen?

bihotzerrea?

Hiri tokatzen zaiala ate hau
beste diferentziarik ez,
tilin egin nahi diok baskari

Nola gustatzen
zaian zarata egitea, bezpera
usaiean. Goieratik utzikeriaz,
tuberia gorrietara muki odoleztatuak,
erresakaren hirian

baztertuak izan gara,

lurrun urrunaren
oinhatzen pista segitzen,
goizeko izarraren
lertxundietatik,
edo esandakoaren ordez
zerbait maitagarria,
oskarbi gosearen moduan
haunditzen doan enigma

hilkanpaiaren saporea
arnas estuan zuenak
hautsjale defuntuak
lo egiten duela
amets egingo du

hainbeste zarata goikoek
gorrotoa aldamenekoentzat,
diruaren garaia;

zer egin dut arrotz
izateko nonahi?
Ikusten dudana ez zait laket,
anima bizkia non dut?
ze pekatutan erori gara,
aurrez bizittutakoa zakuan
sartu, bizkarrera jaso,
eta ondorengo ostiadaren
bila joateko?

bakarrik soldaduskara

Gainean zaituztedan mendiak,
hor geratzen zarete,
ekaitz astakeriak,
kirru, itsaso lodien fronteek
agintzen dute.

Bueltatuko naiz
haurtzaroko ametsetan bezala
etxe gaineko kresalaren bila

Triste iruditzen zaizkien
jarrerak ez dira triste,
joera urminduetan xirrista,

konbenientzian eserleku,
norberarekin gaizto,
dituzte sentitu
mila heriotz,
Egunerokoak bultzatzen
diete oinaze eta desioetara.
Ai txingurriak direla ikusiz,
beraiekin hartuemanak
zilegi banitu!